

NOS MUEVE  
**BILBAO**  
BAT EGINIK



**JUAN MARI ABURTO RIKE**  
BILBOKO ALKATETZARAKO HAUTAGAIA

HAUTESKUNDE PROGRAMA  
BILBO 2019-2023

EAJ-PNV.EUS



juanmariaburto.eus



**ejaj**  
**pnv**

## 5. BIZIKIDETZA ETA SEGURTASUNA

**Bilbo hiria segurua** dela esan dezakegu, zalantza izpirik gabe. Halaxe egiaztatzen dute Estatuko, Europako eta mundu osoko neurri bereko beste eremu metropolitarrak bartzuekin egindako konparazioetako datuek. Eta halaxe frogatzen dute eguneguneko jardunak zein azken urteotan hirian antolatu ditugun mundu mailako ekitaldiek ere.

Azken 4 urteotan, aurrerapauso adierazgarriak eman dira segurtasunaren arloan. Oro har, Udaleko talde politiko guztiek 2018ko otsailean sinatu zuten “Segurtasunaren aldeko Ituna” nabarmendu behar da. Tresna zehatzei erreparatuta, Udaltzaingoaren kaleko presentzia areagotu da, “hurbiltasunezko poliziaren” garapenean aurrera eginez; egun dagoen udaltzain-kopuruaren erabateko estaldura bermatzeko mekanismoak finkatu dira, eta nabarmen hobetu dira beste erakunde batzuekiko lankidetzak eta koordinazioak segurtasun gaitan. Gainera, herritarren partaidetzarako tresna garrantzitsuak abiarazi dira, baita tresna teknologikoak eta segurtasunaren arloko prebentzioa sistematizatzea xede dutenak ere; hala nola, auzoetako lehenengo Segurtasun Tailerrak, emakumeen aurkako indarkeria prebenitzeko Erastop app-a edota arrisku-egoeren detekzio goiztiarrerako protokoloak.

Datozen urteotarako erronka nagusia, **gure auzoetako bizikidetzak eta segurtasuna bermatzeko** era proaktiboan lan egiten jarraitzea da, “**Segurtasunaren aldeko Itunean**” adostutako **35 neurrien aplikazioaren bitartez**. Betiere kontuan hartuz Bilbok hiri segurua izaten jarraitzea nahitaezkoa dela gure hiriaren garapen ekonomiko eta soziala bermatzeko, eta pertsona guztien arteko errespetuan oinarritu eta auke-berdintasuna eskaintzen duen gizarte inklusibo, solidario eta kohesionatu batek baino ezin dituela bermatu pertsona guztien segurtasuna eta erabateko garapena.

## 5. BIZIKIDETZA ETA SEGURTASUNA

### 5.1- BIZIKIDETZA

#### HELBURUA

**Herritarren arteko bizikidetza hobetzea**, gatazken prebentzio eta konponketa goiztiarraren bitartez eta jokaera antosozialen kontrol eta zuzenketaren bitartez.

#### NEURRIAK

1. Udaleko Sailen (Gizarte Ekintzaa, Hezkuntza, Gazteria, Segurtasuna,...) artean eta beste erakunde batzuekin batera lankidetzan jardutea, bizikidetza arloko gatazketarako esku-hartzeen eraginkortasuna hobetzeko.
2. Bizikidetzaren Behatokiak bitartekaritzaren bitartez komunitateko gatazkek artatu eta kudeatzeko egindako jardueren ikusgaitasuna indartzea.
3. Bizikidetzaren Behatokiak prebentzioaren arloan duen eginkizuna indartzea, hiriko auzoetako giltzarrizko eragileekiko etengabeko harremani eutsiz.
4. Bizikidetzaren Behatokiaren Zerbitzu-Agiria lantzea.
5. “Herritarren Segurtasunari buruzko Azoko Tailerrak” deritzon esperientzia pilotua hedatzea, herritarrek segurtasun-politiken diagnosi-lanetan, diseinuan, jarraipenean eta ebaluazioan parte hartzeko aukera izan dezaten.
6. Ikasleei zuzendutako bizikidetzari buruzko prestakuntza-kanpainak bultzatzea.
7. “Zurrunmurruei aurkako Proiektuari” jarraipena ematea, immigrazio eta kultura-aniztasunari buruz zabaldutako estereotipo negatiboak, topikoak eta zurrunmuru faltsuak gainditzeko.
8. Polizia Komunitarioko unitateak sortzea.
9. Polizian bizikidetzako gatazkei buruzko lan-sistema sortzea.
10. Bide publikoko alkoholaren kontsumoaren gaineko kontrola indartzea.
11. Bandalismozko ekintzen gaineko kontrola indartzea.
12. Establezimenduek eragindako zaraten ingurumen-kontrola indartzea.
13. Gizalegearen aurkako jokaeraz jazartzeko plana sortzea.
14. Hirian gizalegez jokatzearen aldeko kontzientziazio sozialeko kanpainak egitea.
15. Auzokideen arteko gatazketarako arreta.

## 5. BIZIKIDETZA ETA SEGURTASUNA

### 5.2- HERRITARREN SEGURTASUNA

#### HELBURUA

Segurtasunaren aldeko Itunean adostutako helburuak eta neurriak betetzea, ahultasunezko egoera berezian dauden kolektiboetako **biktimentzako arretaren hobekuntzan eta prebentzioan** ahalegin berezia eginez, ekitaldi handietan pertsonen segurtasuna bermatuz eta behar adinako giza-baliabideak eta baliabide teknikoak izango dituen auzo-komunitateko poliziaereduan sakonduz.

#### NEURRIAK

1. Udaltzaingoko kide kopurua areagotzea.
2. Udaltzaingoan belaunaldi-arteko ordezkapena eta plaza hutsen estaldura bermatzea, oinarrizko udaltzainen artean nahiz agintaritza-postuetan.
3. Auzo-komunitateko polizia-eredua abian jartzea sustatzea, hiriko auzoetako kolektibo, elkarte eta eragile garrantzitsuekiko etengabeko harremanei eutsiz. Auzoetan, polizia-talde egonkorak finkatzea, auzoko segurtasunaz arduratuko den polizia-agintaria tarteko.
4. Uniformatutako udaltzainen presentziari lehentasuna ematea segurtasunik gabeko sentrazioa dagoen lekuetan.
5. Udaltzaingoan herritarrei arreta integrala emateko sistema ezartzea.
6. Udaltzaingoaren inteligentzia eta prebentzio sistemak hobetzea, Ertzaintzarekiko koordinazio-sistemak barne.
7. Bertako merkataritzako segurtasuna hobetzea, merkatariekiko eta hauen elkarrekin etengabeko harremanei eutsiz, delituak eta iruzurrak prebenitzeko prestakuntza indartuz eta merkatarien eta Segurtasun Sailaren arteko komunikazioa errazteko teknologiaren erabilera areagotuz.
8. Hiri-plangintzan, prebentzioa eta segurtasun-sentrazioa hobetzeko helburuei lehentasuna ematea.
9. Parkeetako eta aisialdi-eremuetako segurtasuna hobetzea, arkitektura-diseinuaren, herritarren kontzientziazioaren eta Udaltzaingoaren presentziaren bitartez.
10. Ahultasunezko egoera berezian dauden kolektiboetako biktimentzako arretari buruzko Zerbitzu Agirian ezartzea.
11. Ahultasunezko egoera berezian dauden kolektiboaren arrisku-egoeren Detekzio Goiztiarrerako Prozedurak ezartzea.

## 5. BIZIKIDETZA ETA SEGURTASUNA

12. Bide-segurtasunari buruzko prestakuntza eta informazio-kanpainak indartzea.
13. Hiria-eren erdiguneko abiaduraren kontrola indartzea.
14. Prebentziorako eta larrialdien kudeaketarako behar den langile-ko-purua bermatzea.
15. Hirian antolatutako ekitaldi handietako nahiz jende-pilaketa handietako segurtasuna bermatzea, segurtasunari buruzko ikuspegia ekitaldien hasierako diseinuan ere txertatuz.
16. Udaltzaingoaren e-Administrazioa hobetzea, salaketak jartzea bezalako prozesuak sartuz.
17. Hiritarren Segurtasunaren arloko daturik garrantzitsuenak [www.bilbao.eus](http://www.bilbao.eus) webgunean argitaratzea, eta bereziki, Hiritarren Segurtasunaren aldeko ituna betetzeari dagozkionak.

NOS MUEVE  
**BILBAO**  
BAT EGINIK